


Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko




abainua eman <i>bultzatu, animatu (?)</i>	Erantzunik gabe nahi zenituen galderak, esan orduko jabetzen zinelako non amaituko genuen abainua emanez gero.	54
abaro babesa, geriza	...nahiz eta hiru egun paseak izan, zure ahotsean hartzen nuela abaro .	88
abegikor atsegina, <i>amablea</i>	...kontainerretan sartzen zirela gauez, bazela [...] dendari abegikorrik , irangi eta botatzeko janaria poltsetan txukun gorde eta eskura ematen ziena.	91
ahutz aho-eztarri gunea (<i>fauces</i>)	...zintzoegi ari zitzaien dena irentsi arteko onik ez zuen ahutz gaitz haiei.	99
ainube itzaltsua, ospela	Gazteak ziren, dena sinpleagoa da beharbada ezer gutxi dagoenean, baina mundua biltzen zen kantoian ainube hartan.	57
akitu nekatu, unatu	Ez zen seguru asko hainbesterakoa izango, baina goiz hartan Serenity Starren siluetari Moby Dick akitu batena iritzi nion...	23
akordura ekarri gogoratu, oroitu	Senarra akordura ekartzen laguntzen ziolako maite zuela porrua baino luzeagoko gizon hura.	164
alaen halakoa	—Pailazo alaenak! Batere gorrotorik gabeko irri ilun bat atera zitzaion.	123
amultsu maitagarria, maitasunezkoa	Esku biez oratu dio poltsari gizon xira-zuriak. Barrura begiratu du, keinu amultsua egin dio ostera moilara igotzen hasia den agureari.	14
anabasa nahaspila, lardaska	...hondarretan bezala sartu nuen eskua izenik gabeko anabasa hartan.	83
anpulu malkoa, tanta	Hitzokin batera negar anpuluak atera izan zaizkit neuri ere, non ostia zeunden zu.	36
antigoaleko antzinakoa, aspaldikoa	...exotikoak zitzaizkidan tunel adreiluzko antigoaleko haietan barrena.	77
antxintxika arineketa, arrapaladan	Antxintxika batean ekin zioten orduan atzetik, putzutuan txipli-txapla.	154
antxumatu gurutzatu	Ondoan, bi besoak antxumatuta berotze aldera marruskaka ari da emakume bat.	13
apakin hondarkina, hondarra	Neguan zakar gehiago dakar apakinetan itsasoak.	119
apaldu beheratu	Apaldu egin zuen Edwinek lehendik goragi ari ez zen ahotsa.	119
ardaila iskanbila, zalaparta	Eta Guardia Zibilaren ontziaren argi urdina Serenity Starren popatik bazterrago, ardailaren eta uhararen atzean gero eta urrunago ikusten ari zela...	134
artatu zaindu	...Londresera joan zela minbizia zuelako eta han hobeto artatuko zutela pentsatzen zuelako.	117
artega urduri, kezkatu	Artega joan nintzaion atzetik. Horma gainean zeuden kalatxoriek labarretara hartu zuten gu hurreratu orduko.	11
arteztu zuzendu, gidatu	Baina moila muturra atzean utzi eta bokalean hondo emandako zamaontzien artera arteztu zuen ontzia.	51
asago urruti, urrun	Nondik iritsi behar zuen galdetuta, taberna baten izena eman zion, geltokitik ez asago .	32
atabal danborra	Enbatak atabalaren indarrez jotzen zuen barlasaia, zoruaren kontra hautsi zen teila bat erauzi zion haizeak aurreko etxeari.	31
atalo (<i>pez luna</i>)	Horregatik ikusi genuen katua, ataloa bezain puztuta.	51
atoan berehala, bertatik bertara	...ama atoan hartu omen zuen etsiak.	189
atoiontzi erremolkadorea	Atoiontzi bat zen, eguna bezain beltz abiada...	80



auskada haginkada	... auskadak dituela saman, odoldua burua, hezurak agerian.	110
azkordin ospela (azal handitua, mingarria)	...haize berdeak azkordinak aterako zizkidala esan zidan Mateo Vallejok ondo babesten ez banituen...	78
aztarrika lurrean erpaka, azterka	Aztarrika , hala datozkit Mateo Vallejorenean emandako hilabete haiek orain.	24
babak atera ur-batua sortu (<i>ampolla</i>)	Turista horiek bezala, erreginareen kuleroak ikusteko esperantzarekin batetik bestera oinetan babak atera arte?	164
baga olatua	...izua, ontzia egoera horretan egonda bagak aingura katea eten eta jitoan haitzen, moilen, hondartzaren kontra bultzatuko ote zuen.	64
baraila masailezurra	Irten beharrean zituen begiak, etengabeen mugitzen zuen baraila , eta harekin gezurretako hortz haiek, ilargia bera baino zuriagoak.	97
barlasai leiho ertza	Enbatak atabalaren indarrez jotzen zuen barlasaia , zoruaren kontra hautsi zen teila bat erauzi zion haizeak aurreko etxeari.	31
barrundatu nabaritu, sumatu	Urbano Peñak hartxintzar xehatua barrundatu zuen alabaren heriotzaren berri eman zion ahotsean...	16
bebarru <i>entrepanta</i>	Bebarruko atea zabaldu orduko genuen zain Mateo Vallejo.	10
bederen behintzat, behinik behin	Gero sukaldera igaroko ziren hotsak, etxean bazen bederen beti amaren ostean jaikitzen zen Kattyrenekin nahasten zirenak.	158
begitan hartu ezinikusia sentitu, gorrotatu	Xira zuriko zonak zirtoaldi merkez lasaitu nahi izan zuen giroa. Berehala hartu nuen begitan .	16
begitandu iruditu	Mateo Vallejok ez zuela itzulpenik behar begitandu zitzaidan, baina.	93
begitarte aurpegia, bisaia	Eta barre egiten zuen zure begitarte a imajinatze hutsarekin...	149
beha begira, adi	Sartu orduko ikusi ninduen Edwin.Nasan presaka batean zebiltzan oinei beha zegoen, kiroleko poltsa ilun bat zuela aldamenean.	114
bekereke arditxo jaió berria	Haizea dabil. Olatuen zurda zuriak datozkit begietara. Bekerekeak dirudite uretan bazkan, plastiko tarratak bestela.	12
bekoz beko aurrez aurre, buruz buru	Toki Onako mahaian bekoz beko daudela, odolaren indarra aurkitu nahi ditu Terek aurrean duen gizonaren atzamarren forman...	37
belu berandu	Baietz begiez, nola ez, baietz irribarre biluziz, ondo oroitu ere nola jaitsi ginen larunbat edo igande batean moilaraino, goiz beluan .	11
belztu ilundu	...berriro egingo zion keinu bera, segi, ekarri hori!, ekarri!, joango zen adar belztua airean, halako parabola bat eginez beti...	140
beren-beregi apropos, nahita	Sukaldeko apalean utzi zuen paketea gero, tiraderan beren-beregi gordeta kiskeroa.	36
berriketán hizketan	Taberna giltzatuaren atarian daudenenganabildu da Urbano Peña. Berriketán aritu dira.	12
bilin-balaunka goraka eta beheraka	Bilin-balaunka hasi zen itsasoa, eta gu ondoren...	80
bits aparra, haguna	Uhararen bitsa gibelean, lema gainean okertu zen Mateo Vallejo tur-turrean gindoazela.	75
bokale ibai-aho zabala	Eta gauaren aho zuloan, itsasoaren iluntasuna, bokalean hondo emandako zamaontzietako argiek mudatzen ez zutena.	
branka itsasontzien aurre alde	Xira zurikoak errausten ontzia ondo zihoala erantzun zion, ea brankan zer moduz galdetu zuen.	17
buila iskanbila, zarata	Eta batez ere haurren builak datozkio, harrezkero osterara aditzea lortu ez duen usain hura, eta gizon heldu haren magala.	108



damu izan txarto egina sentituta egon	Pozetik nuena nuen urduritasunetik, eta orain damu naiz alaiago ez agertu izana amak zabaldu zuenean.	155
doi ozta-ozta	Doi erantzun zion diosalari Mateo Vallejok.	78
doi bat apur bat	Mateo Vallejok soka bustia bildu eta enbarazu egiten duen jendea doi bat baztertuta motorra arrankatu duenean...	14
durduzatu asaldatu	...ordurako bost axola zitzaidan zuk ikusiko zenuen, durduzatu egin ninduten amaren aurpegierak.	87
egoitza erresidentzia	Orain berandu duzu horretarako ere, Urbano Peña bera joana da. Egoitza batean eman zituen azken lau urteak, eguteraan eguzki-antza zenean...	21
egundo inoiz ez, sekula	Ez ahaztu: zu izan zara berak nahiko zukeen eta egundo izan ez zuen semea. Berarekin zuritu beharrekoak zenituen horiek, ez nirekin.	21
egutera eguzki aldeko lekua	Egoitza batean eman zituen azken lau urteak, eguteraan eguzki-antza zenean, burua non zuen ez zekiela	21
eltxo eulitxo ziztatzaila	Umorerik gabe, partikula ezin xeheagoetan alde egin zuen gure ingurutik Luk. Milaka pinporta afrikar eltxoak bezala hegatu.	
enbarazu egin traba egin, eragotzi	Mateo Vallejok soka bustia bildu eta enbarazu egiten duen jendea doi bat baztertuta motorra arrankatu duenean...	
enbata ekaitza, erauntsia, galerna	Enbatak atabalaren indarrez jotzen zuen barlasaia, zoruaren kontra hautsi zen teila bat erauzi zion haizeak aurreko etxeari.	31
erantzi arropa kendu	Leiho orria zarratu eta ohe gainean etzan nintzen, erantzeko kemenik gabe. Galtzerdiak ere bai.	
erasan kalte egin, afektatu, hunkitu	Baina isilik geratu da aitite Mateo lagunari begira. Ez dago ondo, erasan dio ederto alabaren heriotzak.	
erauzi indarrez atera	Orria koadernotik erauzi eta, xehatuta, komuneko zulutik behera bota nuen.	161
erdoka	...ugerrak osoro janda zuen metalezko krasko bat, kareletik beherako erdoka gaitz haiekin, uraren azalean nola ez dakidala ozta eusten ziona.	
errari batetik bestera dabilena	...nik dakit ba, holandar errariarena , behelaino artean agertzen zena arrantzan...	77
errauts hondakin hauts erre	Luren errautsak botatzera joan ginen egun hartan bertan.	21
erriatu soltatu esatekoa	Mintzo zedin utzi zuen Mateo Vallejok, eskatu gabe erria ziezaiola nahi zuen.	61
errio ibaia	Nekerik gabe egiten du barre bere buruaz aitite Mateok, horman Athleticekoak direla gabarran igota errio lohian gora.	40
erruki-begi penazkoa	Eta Mariaren erruki-begi haiek...	123
esku ahur eskuaren barruko aldea	Esku ahurrak izter gainean jarri eta arnasa bere onera hel zedin ahalegindu nintzen.	129
eskuargi linterna	Eskuargiaz kontsultatu zituzten karpetan zituzten paper guztiak.	134
estalpe aterpea	Hura zuen goizeko kafea hartzeko estalpe Mateo Vallejok.	32
estekatu lotu	Eta zuri laguntzeko erabakiak estekatu nau kanpotarrei zerbitzatzen, ardoak, txakolinak, bermutak, bitterrak, muztioak ateratzeko.	107
estolda alkantarila, lurpeko kanala	Zaparradak zuloan behera bildutako orbel bustia irentsitako estolda nintzen.	163
estraperlo merkatu beltza	...begiluzeren batzuek adarrean galdetu ziotela zer ibili zen, ea estraperloan hasi behar zuen, aduanakoei ziri sartzen, “noiz eta Moisesen adinera iritsita”.	52




etsia hartuta amore emanda	... etsia hartuta zuena lastasua bezala piztu zen.	149
firin-faran axolagabeki	"Ez nire alaba hori bezala, firin-faran munduan barrena..."	66
gabetanik barik, gabe	Abran eman zuen denbora hartan, inork galdetu gabetanik maiz, zirenak eta ez zirenak ikasi genituen Serenity Starrez.	75
gainzuritu olatu mutur bitsezkoa	Kolpeka egin zuen motor-txikiak aurrera, uhin gainzurituek mendebaldetik jotzen zutela.	15
galanto ederto baten	Bestela xehakatuko zuen galanto , hagin artean izpitu, ez zion, ez zionez barkatu zion moduan barkatuko.	100
galipot bikea, <i>brea</i>	Argi bustiak eta oinetakoen ibili presatua galipot harrotuan.	10
ganbila konbexu. konkabo	Nire bideak, berriz, zurearen moldea zirudien. Bata ahurra bazen, bestea ganbila . Zenbat eta kanpoan gehiago zu, orduan eta bilduago ni.	20
gandu begietako lausoa	... ganduak moteldua zion begirada.	119
gangar harro, harroputz	Barre gangar batek jarraitu zidan taberna ateraino.	187
garro erroa (olagarroarena, metaf.)	Ostean, ez zenuen argia piztu, eta eskua bera, orkatilari loturiko garroa , handik lasterrera bildu zenuen.	88
gatibu preso	Serenity Starreko marinelek zamaontzian jarraitzen zuten gatibu .	122
gomutan izan gogoan, akorduan izan	Izena, gomutan nuen.	116
gomutatu oroitu, gogoratu	Kontatzen hasi eta nahasi egiten zaizkio denak Mateo Vallejori, orduan izandako elkarrizketak ez ditu zehatz gomutatzen , dena da halako tropoilu bat.	41
gonbito oka, gorakoa	Berehala xaretu zen gonbitoa ur koipetsuaren azalean, hari zurixka batzuk bakarrik gelditu ziren arte.	103
hahor hara hor, <i>aiba</i>	...eta hahor non ikusten duen Mateo haurra gurasoekin sartzen, ikusi egiten ditu oraindino Asuntaren begi ilunak hegoak bezalaxe zabalitzen...	35
hanpatu puztu, handitu	Errukia ez niola aipatuko, garbi nuen. Elkartasuna, hanpatuegia zait orain, sano normalagoa zen gertatu zen guztia.	157
har zizarea, bitxoa	Ordainaz hitz egin zidaten, horregatik hartu zuela Edwin etxean, gaizki eginaren harra zeramalako barruan.	187
harraska sukaldeko harria	Harraskan utzi zuen poltsa. Plastikozko korapilota askatuta, albo batera egin zuen zamak, bizirik baleude legez atera ziren labainka geunetan.	27
hartaraturik bideratuta, horretara eramanda	Ez dakit ez ote den orduko hura, nolabaiteko behar honek hartaraturik , gerora neuk osatu eta edertua.	10
hartxintzar legarra, harri xeheak	Urbano Peñak hartxintzar xehatua barrundatu zuen alabaren heriotzaren berri eman zion ahotsean, hala aitortu zion aitite Mateori.	16
hartzitu fermentatu	Egunen ibiliak dena hartzitzen du, eta nik noiz galdu ninduzun esan beharra dizut...	46
hatsarre hasiera	Lurrean infernuri bada, aireportu hura izan zen arratsalde hatsarren hartan.	177
hazkurri elikadura, janaria	Egun hartan bertan helarazi zitzaion Serenity Starreko marinelei jaso ahal izan zen hazkurri guztia.	72
hazpegi aurpegiko ezaugarriak	...gure hazpegia duzu. Izena ere... nola deitu behar dizut?	37
hegabera hegazti mota (<i>avefría</i>)	Handitu egiten zaio dardara. Hegabera elurretan bezala babesteko ezarri dio berea gaanean.	44



hegi ertza, hegala	Zorionak zorrotza du hegia , ordea.	167
herabe lotsati	Ezaguna zaio ezti kolore hura, txikitasun gaiztoan herabe .	37
herdoil ugerra, oxidoa	...nahasten zen herdoil sunda bustia, surziloetan barrena ezterrian behera...	23
herra gorrotoa, hegigoa	...heriotzaren itzala ikusten zuelako nahi ninduen herratik askatu.	156
hizpidera ekarri aipatu	Abokatu bat ekarri zuen hizpidera , konpainiaren izenean mintzatu zitzaieela aurreko astean Serenity Starren bertan.	117
hozmin hotz-hotza	Zer egiten du itsasoetako jaunak olatuetatik, enbatetatik, galarrenetatik hain urrun, erbeste hozmin hartan?	171
hurre hurbil, gertu	...putzuetatik hurre nabilela, alga bustien usain gaziak hartzen dizkit sudur-mizpirak.	49
ihar idortua, sikua	Belar ihar latzek haitz beltzari uzten diotenean tokia, biok mantsotzen dugu urratsa.	49
ihi zia, hezegune landarea (<i>junco</i>)	...erreka bazterreko ihiek ezkutatu zuten gau osoan.	119
iratzarri esnatu, itzartu	Goizeko seietan iratzarri zuten Urbano Peña. Atertzen ez zuen telefono hotsa ilunpetan. Ahots arrotza zen.	16
iraungi epea amaitu, kadukatu	...bazela izen eta guzti ematen zen dendari abegikorrik, iraungi eta botatzeko janaria poltsetan txukun gorde eta eskura ematen ziena.	91
iruntzietara azpikoz gora, alderantziz	...harik eta halako batean olagarroa burua iruntzietara duela erakusten didan arte, arestiko indar gabe abailduta.	50
isiotu piztu	Lehenengoan piztu isiotu zen kiskeroa.	92
izkira ganba	...botako zintuen itsaso hondora egun hartan aurrean harrapatu izan bazintu, lazunek, balezarrainek, karramarroek, izkirek , eltxarrek osorik jan zintzaten.	137
izpika zatika	...eta balkoia, tala zabal hura itsasoa etxean izpika sartzeko.	55
kakotu gantxo gisa jarri	...eskua adarpean kakotu eta madari bat zuela jaisten zuen Mateo Vallejok.	47
kamustu dorpetu, zorroztasuna kendu	Nahita kamusten nuen ahoskera, gurata baldartu joskera, horretan ere ikasi nuen nintzena ez agertzen.	48
karel itsasontzien goiko ertza	Moila utzi orduko hasi ziren oihuak, balantzagatik adina karelean barrura sartzen hasi ziren zipritzinengatik.	15
karranka karraska, krakada	...zurezko leiho zuria zabaldu nuen. Karranka zabaldu zen. Pestizida ukaldia.	10
katigatu lotu	Bi emakume eta gizonezko bat dira Tereren besoetan katigatu direnak, atzetik datozen beste hirurekin, okerreko musutan, txandaren zain urduritzen direnak.	107
keizu	Komunean sartu, kisketaz itxi, zapia erantzi eta keizu hura, bihar-etzietakoa atzaparkaka gainera amiltzen, ni uztearen pena...	158
kemen adorea	Leiho orria zarratu eta ohe gainean etzan nintzen, erantzeko kemenik gabe.	10
keru kiratsa, hatsa	Ez esan ohi den legez zuri-beltzean, baina denak du zahar keru hori, eta bere burua ikusten du gerra amaitu eta gutxira...	35
kito nahikoa, akabo	Dirua behar zen eta dirua sartu zen. Kito .	119
kondar hondakina	Azpolean gelditzen zen kondarra atera zion Mateo Vallejok luzatzea kostatu zitzaion platerera.	133




kraion arkatza, lapitza	Sua egin, koadernoak erre, boligrafoak hautsi, kraionak haustu, eskuak moztu, aurrerantzean inoiz letra bat, [...] gutun bakar bat idatzi beharrik ez izateko.	192
kresal gesala, itsas uraren gazia	...intsektizida fabrikakoarekin eta kresalarekin nahasten zen herdoil sunda bustia, surziloetan barrena eztarrian behera hazi eta birikietan lehertu.	23
labar itsas ertzeko malda pikua	Labar gainean hasi eta itsasoaren bestalde, lainoen gaindi Portsmoutheraino eramango ninduen zubi moderno, ikusgarri bat...	48
lagatu utzi	Gogortuta lagatzen zaituzten elkarriketa horietako bat izan zen...	69
lakar latza, zakarra	Eskertu nion esku lakar hura besagainean.	70
lamara ateratzen den beroa	Eskailera mailetan behera, metro-zuloaren lamara ustelak irensten zuela, gauzak ondo egiten ari ote zen pasa zitzaion burutik Tere Aizpururi.	34
lanbro lainabera eta zirimiria	Lanbro errea da denbora.	168
landur lanbroa, langarra	Lanparra hari zuen osterera ere, landur xehe, geldo aspertua.	69
lanpar lanbroa, langarra	Lanparra hari zuen osterera ere, landur xehe, geldo aspertua.	69
lanparorratz	Eta ohartzerako lanparorratzak hodeietan behera, lanparorratzak portuko ura zulatzen, lanparorratzak potin eta motor-txiki guztien gainean jo eta jauzika.	
larderia beldurrezkoa, mehatxuzkoa	Amorrarazi egiten du horrek orain, ezin eramana egiten zaio larderiazko isiltasun haren guztiaren zama.	37
laruxka horixka	Paper zahar laruxka batzuk baino ez zeuden, sei edo zazpi eskutitz eta heze orbanak dituen sobre orbaindu bat.	174
lauhazkan arrapaladan, arin ere arin	Lo seko egongo zara ospitaleko korridoreko zelaietan negarra lauhazkan libre ibili ostean bezatzen hasten garenerako.	182
lauso gandua, difuminatua	Irudiz, itzalez, lauso z, argi-hariz, ñabarduraz osatu beharreko estampa...	19
lika kola, pegamentua	Hegazkinetik jaitsi orduko zain nuen aire grisa, lika bezala eransten kristalaren bestaldean erdi-ilunpetan ageri zitzaizkigun kaleen...	154
lipar unea, momentua, eretia	Mateo Vallejok baietz dio, ahaztu da bere buruari agindutakoaz , eta ezpainak alaitzen zaizkio lipar batez.	44
magal sabel aldea	Atsegintasun izpirik gabe, magalean utzi zuen liburua.	121
magurio itsas-barakuilu, karrakela	Arantza moreak dituzten itsas trikuak bizi dira bertan, lapak magurioak , goroldioa.	49
mailadi eskailera	Mariak nahi baino astiroago egin zuten oinek mailadi bustian behera.	122
makal ahul, indarge	Nahi baino makalago jantzi nituen botak, eskaileretan behera lotu nuen txanbergoa, lepoan biltzeko astirik gabe fularra.	128
makon kabuxa, arrain mota	Potxingoetan, izkirak eta makonak daude, txitxinak bezain arinak. Eta haitz zorrotz asko, marea behean dela joaten baikara beti.	49
masta itsasontzietako haga	Serenity Star da, xehe-xehe ekarri orri horixketara. Popaz, alboz, branka muturra, kubiarta zabala, masta , aginte-zubia letra handi haiekin...	23
mataza korapiloa, bildurik dagoen haria	Barrea negar bihurtzenaio, barruko mataza erabat askatu ezinik dabil aitite Mateo.	106
menturaz agian, beharbada	...propaganda hura ondo etorriko zen menturaz gorantzago egin eta, espero zenuen bezala, diru sarrera handiagoak izateko.	72
mingots mikatza, desatsegina	Algara mingotsa atera zaio Mateo Vallejori...	42




miraz mirespenez, txundituta	... miraz ibili zara apartera begira, hain da ederra ederrik bada; gero eman duzu begia hurrera...	163
moila kaia	Atzealdean, Serenity Star ikusten zen moilako grisarekin nahastuta.	142
moropila korapilo	Egunak eman zituen Terek tripako moropila askatu ezinik, ezer ez esan nahi etxekoei...	34
munta garrantzi	konsultatuetara deituta, ezinezkoa bihurtua zen munta hartako arazoari aurre egingo ziokeen arduradunik aurkitzea.	61
musker berdea, orlegia	Esan egin nion, ilargi betea zirudien aurpegi ederreko neskatilak zeru musker hartan...	115
mutxikin hondakina	Harrika botatzen genuen mutxikina gero, ea nork urrunago.	49
muxika melokotoia, mertxika, preskua	Ondoan Kristal gardenezko beste bat, saga edo muxika pattarrarena, hutsik supermerkatuko zorro melatutik irtenda.	123
nakaratu zuria eta gogorra	Kutxa ilun bat zen, haria emanda tapa bereizten zitzaion ontzi nakaratu . Urre kolorekoa ertza bueltan.	11
napalm gai sukoaia	Ordukoa dut konparazioak egitea, berbakera handigura hau. Denbora napalma da.	24
nasai estutu gabe (<i>flojo</i>)	...toki guztietatik zuen nasai pijama.	134
ohatze etzalekua	Eta ohea, hurrengo eguerdira arte babestu eta mintzo egokia ekarriko zidan ohatze biguna gela arrotz batean, poster zaharrez inguratua.	155
ohazal <i>sobrecama</i>	Begiak bildurik nituen, zure eskua sentitu nuen ohazal gainean nire oinaren bila, orkatilatik leunkiro eusten.	86
ohoin lapurra	Eman ez, ez didate egin, ostu egin dut argazkia, lotsagabe ostu ere. Ohoina duzu alaba, bankuekin hasiko naiz bihar.	183
oilarite egunsentia, goiznabarra	Garbitu egingo zuen airea arratsaldeko zaparrada hark, oilaritera arte eramango zuen tarrasean sufre keru zaharra...	26
onenean beharbada, agian	Onenean , tarteka eskua igota agurtzen zuten marinel ilunek karelean.	51
orban mantxa, zikinunea	...halako orban gorrikara bat, tarteka batetik bestera labaintzen ziren.	83
orgatxo eskorga	Arropak ere aldatu zituen. Bodegan zituen ur bidioiak orgatxoan zamatu eta moilarako bidea hartu zuen.	96
orin orezta, peka	Eguzkiak beltzarandutako azala zuen Luk, milaka orin txikiz josia.	17
orka ezpalarta (itsas ugaztuna)	Beti zegoen nor edo nor oporretako argazkiekin joaten zena, eta hauetan orka , izurde, edo balea baten ondoan edo haiei laztanka ageri zena...	22
orube lursaila	Eta begiak osorik hartzen ez duen orube zabala gure bizitza...	24
ostera ere berriz	Seina kendu eta gero, aita komentura itzuli zen ostera ere .	39
ostertz hodeiertza, horizontea	Ostertzetik gora zegoen artean eguzki hotza, lema bestalderatu eta zamaontzien artean sartzearabaki zuenean.	102
otoz otoan ustekabea	...baina orduan otoz otoan zabaldu da atea eta oiuhu batek askatu ditu ezpain guztiak.	107
paparra zabaldu harrotu, puztu	«Harrotu egiten naizelako» erantzun behar niokeen, zabaldu egiten zaidalako paparra iragana berregiteko gai naizela ikusita.	
paraje ingurua	Inor gutxiko parajea zebiltzan autoa pandizean behera amildu zenean.	17



pasieran paseoan	Eta pasieran joaten ziren betiko osteratxoa egitera...	148
pattar likorea	Xorta bana pattar hustu zuen bi kopetan.	60
pendiz malda	...parajea zebiltzan autoa pendizean behera amildu zenean. Hori zabaldu zen orduan behintzat.	16
petril bide ertzeko hesi edo hormatxoa	Laubost lagunek inguratu dute, hala ikusten dugu petril ondotik Mateo Vallejok eta biok, elkarri berbarik egiteke.	13
pinporta kimua, garaua, pikorta	Milaka pinporta afrikar eltxoak bezala hegan.	18
pol-pol hotsa, zarata (hots-hitza, onom.)	Luzaro egon nintzaion goraka ateratzen zen uraren pol-polari erreparatzen...	171
potin txalupatxoa	Eta ohartzerako lanparorrazak hodeietan behera, lanparorrazak portuko ura zulatzen, lanparorrazak potin eta motor-txiki guztien gainean jo eta jauzika.	
poto botea	Baziren bi hilabete Lourdes Peña poto hartan sartua zutela, eta hirurogei egun asko da hildako bat egongelako apalean izateko.	14
potxingo putzutxoa	Edo hildako hormatxori bat bezala geldituko zen potxingo beltz baten erdian.	26
presa premia	Bat-batean dena bihurtu zuen presa izuak.	136
printz izpia	Abran, eguzkiaren printza gorriek ur azalean dirdira margotzen dutelarik,ontzi mordoxka dago.	63
saburdin armiarma arraina	Saburdin asko ari zen harrapatzen azken aldian, edota kabrak, berdelen bat tarteka...	27
salaketa denuntzia	Kontsulatutik laster deituko zuten, salaketarena konpondua zela eta egiteko poltsa eta agurtzeko lagunak, aterea ziotela etxerako txartela esango zioten.	166
samurrago bigunago, eztiago	Harritu ere egiten ninduzun, bazenekien tarteka berago, samurrago , gertuagoko agertzen, eta zer egin ez nekiela egoten nintzen orduan.	
segatu ebaki	...itsasoaren barea nola segatzen zuen begira egon ginen luzaro.	141
sein umetxoa, haurra	Seina kendu eta gero, aita komentura itzuli zen ostera ere.	39
sikiera behintzat	Hala balitz sikiera . Horien gaineko airea, larderiaren estalkia da astunena, ustez guztia betirako iluntzeko zabaldu zena.	153
sits bihurturik ezerezituta, suntsituta	Klaudio Aizpuruk inoiz idatzi bazuen halakorik, kedarrezko sits bihurturik ziren aspaldi, hauts beltz, ezer ez.	176
soildu bakandu	Iluntze hartatik, atzerantz begira noala, autoko argi laranjak datozkit, platanoen hostaje soiltzen hasian klik eta klik.	9
solastatu hitz egin	Alferrik pasatzen utzitako denboraz solastatu ziren, ezagutzen ez nituen izenak atera ziren, “egin behar dugu bazkari bat denok ezagutzeko”.	95
sudur-mintz usaimena	...itsuak direnek dute entzumenik onena, belarrik gabekoek sudur-mintzik zoliena.	21
sunda usaina edo kiratsaren tartekoa	Goma bustiaren sunda .	78
surzilo sudur zuloa	...intsektizida fabrikakoarekin eta kresalarekin nahasten zen herdoil sunda bustia, surziloetan barrena eztarrian behera hazi eta birikietan lehertu.	23
taket hesietako haga (<i>estaca</i>)	Mateo Vallejoren hitzak entzun eta batera jaiki zen Urbano Peña. Taketa den bezain tente luzatu zen.	59
tanga edalatzi euskarriduna	Tanga hartu eta ohola altxatuta motorrari zerion olioarekin nahasten hasia zen ura txikatzeko agindu zidan aurea etxerantz jarri genuenean.	102



tantai handia, garaia	Tantaia zen gizona, beste garai bateko bizar luze xarekoa.	173
tarras arrastaka	Itzarririk sumatu nuen gauerdian, zapatilak tarras , karrajo ilunean barrena atzera-aurrera.	68
tarrata urratua, zati apurtua	Haizea dabil. Olatuen zurda zuriak datozkit begietara. Bekerekeak dirudite uretan bazkan, plastiko tarratak bestela.	12
tarratada zartadura, arrakala	Pentsu-zaku zuri bat zen, arroka artean preso, sokaz itxita eta tarratada batekin.	51
tatxa akatsa, inperfekzioa	Ez dago hor tatxarik , lagunak deitu zintuen, aukera sortu zitzaizun, nahikoa da.	?
taxuz ganoraz, behar bezala	Hodi hori malguk hartzen zuten espaloia, lurpean sartzeko gertu, elkarren ondoan taxuz pilatuta.	10
tiradera kaxoia	Sukaldeko apalean utzi zuen paketea gero, tiraderan beren-beregi gordeta kiskeroa.	37
trepeta tresnak, aparatuak	Harrezkero, sarriro egiten genuen beheko lonjara jaitsei, trepetak hartu eta inori ezer esan gabe kostaldeko errepidetik, frontoi zaharrek estrata gibel utzita...	47
tropoiluan nahastean, anabasan	Urduri baztertu nituen gainean ziren paper tolestuak, gutun azalak, diru xehea eta hamaika txipi-txapa tropoiluan .	83
trumilka pilaka, multzoka	Metroan ibaiertz berritu ertzetik doalarik, trumilka datozkio Tereri Bilbora izekorenera zerbitzatzera heldu zeneko hizketaldi, irudi, usain ukaldi guztiak.	34
tur-turrean	Uhararen bitsa gibelean, lema gainean okertu zen Mateo Vallejo tur-turrean gindoazela.	75
txapar baxua, txikia	Peñaren aldean txaparra da aitite Mateo.	12
txapitula markesina	Aparterago elkartzen ziren osaba-lobak, Arriaga atzean-eta askotan, tranbiak hartzen ziren txapitula berde baten azpian. Ikusi egiten du oraindino ere.	39
txatal pusketa, zatitxoa	Ia bi ordu arrotz izan ziren, ez-leku batetik iragan txatalak ateratzen arin joan zirenak.	178
txera laztan, maitasun	Eta orain, denboragarrenera, nahastu egiten zaizkit irudiak, nahastu ezpainak, laztanak, txerak .	168
txermen madari txiki gozoa	Ahoa busti eta eskuak likatzen zizkidan txermen urtsu bat eguneko.	47
txikot soka lodia	Ordurako, eta joko zuen beldurrez, atereak zituen motor-txikiko defentsak Mateo Vallejok, txikot zaharrez lotutako lambretta gurpil-azal batzuk.	77
txitxin	Potxingoetan, izkirak eta makonak daude, txitxinak bezain arinak. Eta haitz zorrotz asko, marea behean dela joaten baikara beti.	49
txorrota kanila, txorroa	Handik gutxira sentitzen nuen ura konketako txorrota behera...	158
ubeldu odolbildu	Ubelduak nituen eskuak. Haize berdeak azkordinak aterako zizkidala esan zidan Mateo Vallejok ondo babesten ez banituen, minberak zirela.	78
uger herdoil	Eskua gero, atzamarrak, eta hatz muturrak azkenik, mamiez ugerra ukitu ahal izan nuen arte.	77
ugerrak janda gutziz herdoilduta	... ugerrak osoro janda zuen metalezko krasko bat, kareletik beherako erdoka gaitz haiekin, uraren azalean nola ez dakidala ozta eusten ziona.	
ugertu herdoildu	Hanka ugertuko mahi bat, oinetakoen armairua, lanabesak eta erratzak azken tomateak larregi gorritzen piperrak kakotik zintzilik.	55
uhar ontziek uretan utzitako arrastoa	Uhararen bitsa gibelean, lema gainean okertu zen Mateo Vallejo tur-turrean gindoazela.	75
ukaldi kolpea, astinaldia	...zurezko leiho zuria zabaldu nuen. Karranka zabaldu zen. Pestizida ukaldia .	10



urri hondar urriaren amaiera aldera	Gogoratzen, aita? Urri hondarretan geunden aitite Mateoren etxera aldatu ginenean.	9
usadio ohitura	Usadio hartua zenuten Mateo Vallejok eta zuk, bata bestearen ondoan ez egotearren seguru asko, etxetik kanpo errari ibiltzeko gauaren atarikoia.	83
xaxatu zirikatu, kilikatu	Skinner doktoreak asmatutako kutzarekin xaxatzen gintuen irakaslea zen Barney.	53
xehe-xehe zehatz-mehatz	Serenity Star da, xehe-xehe ekarri orri horixketara. Popaz, alboz, branka muturra, kubiarta zabala, masta, aginte-zubia letra handi haiekin...	23
xera	Maskotaren xerarekin laztandu du zorro plastikozkoa.	14
xira zira, euritarako kapusaia	Ordutik ahaztu ez dudan xira zuria zeraman, berak kendu zion tapa errautsen potoari.	146
xorta txorroztada	Xorta bana pattar hustu zuen bi kopetan.	60
zabarkeria baldarkeria, narraskeria	Hautsak zabaldu zirenean ez zen okerrik gertatu, ez zuen haizea bat-batean aldatu, ez zen inoren zabarkeriaz hildakoa jendearen gainera etorri...	17
zantar desatsegina, itsusia, zikina	Eguraldi zantarrak bekerekeak eragiten zituen olatu zurdetan puntuetatik kanpo.	123
zemaitu mehatxatu	bataiatu ninduen abadeagana joan, baina alferrik ari nintzela zemaitu ninduen On Elias Jauregik, ez nuela sekulan arean jakingo.	42
zerrazahia zerrautsa, zerrakina	Toki Onako behégain bustian zerrazahia zabaltzen dabiltzala, nahi aldean geldiro doakio osatzen Mateo Vallejori iragana.	38
zirkinik ez mugimendurik	Plastikozko zorro bat zuen petril hezearen gainean, haize berdeak bandera bat bezain erraz astinduagatik, zirkinik ere eragiten ez ziona benetan.	
zirrara hunkipena, inpresioa	Tarteka, zerbaitek eragindako zirraren bat edo beste, gaztelera hanpatu, jasanezin batean idatziak.	176
zirtoaldi ateraldi, txantxa	Xira zuriko zonak zirtoaldi merkez lasaitu nahi izan zuen giroa. Berehala hartu nuen begitan.	16
zoli fina, ernea, indartsua	Badakizu zer gertatzen zaien animaliei:itsuak direnek dute entzumenik onena, belarririk gabekoek sudur-mintzik zoli ena.	20
zotinka negar-hipaka, espasmoka	Zotinka ekin zion. Besarkatu egin ninduzun.	87
zozpala egur ezpala, printza	Eta beste bat gero haren ondoan, zozpala baino argalagoko gizonezko batena ...	161
zumar zuhaitz mota (<i>olmo</i>)	Zumar zahar bat zen, kartelak jarri eta erauzi egiten zizkioten zumar gaixo bat, milaka grapa txikiz zaurituta.	57
zurda (animalien) ile latz sorta (metaf.)	Haizea dabil. Olatuen zurda zuriak datozkit begietara.	12
zuritu azala kendu	Sagarraren azala zuritzen ari zela argitu zigun Edwinek kontsulak berak esandakoa, nola agindu zion besteekin batera aterako zutela.	132
zurrua edana	Aldrebes ibili nintzen oso. Zurrua . Nor nintzen jakin nahi nuen.	42
zurtu erabat harritu	Zurtu egin zen, harritu plantak egin zituen behintzat motor-txikiari so...	126